



Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

Ibiltariak bihar iritsiko dira Gernikako haritzera.

Bi milatik gora kilometroko ibilbidea oinez Alemaniatik

Bakearen aldeko mezua dator Gernikara

Bakearen aldeko mezua lotu ditu, aurtun, Pforzheim Alemaniako hiria eta Gernika, biak ere bonbardatuak izandakoak. Bakeak ez omen daki

mugez. 2.000tik gora kilometroko ibilbidean, bake mezua daraman lekukoa asteartean ekarriko dute ibiltariak, oinez, Gernikara.

Gernika eta Pforzheim anaituta dauden «hiri martiriak» lotzen dituen bi mila eta berrogeita hamabost kilometroko ibilbidea egiten dabilta oraindik zenbait lagun. Bizkaiko herria 1937ko apirilaren 26an, eta Alemaniako, aldiz, 1945eko otsailaren 23an airez gogor bonbardatu zituzten. Bi data sinboliko horiek, hilabeteak eta egunek behin behin, «Bakearen Bidea» ren hasiera eta amaiera adierazten dute.

Hain zuzen ere, II. Mundu Gerran aire armada aliatuak Gernika bonbardatu zuen egunaren 60. urtemugan, Pforzheim Alemaniako hiririk abiatu zen «Bakearen Bidea» izendatu duten ibilbidea.

Horren xede nagusia hau da: barruan bake mezu bat daraman lekuko bat eramatea. Mezua Pforzheimen irakurri zuten otsailan, eta oinez handik irten ostean, astearte eguerdian Gernikara iritsitakoan berriz irakurri nahi dute.

2.055 kilometro egiteko 63 eguneko epea baino ez dute izan ibiltariak. Aste Gernikatik eta Pforzheimdik hainbat la-

gun animatu dira bertan parte hartzera, eta horren arabera taldeak osatu dituzte lekukoa eramateko.

Aste bat edo bi igaro, eta batzuek alde egin zutenean, beste batzuek ekiten zioten erronkari. Baina badago hasieratik amaierara eutsiko dionik ere: Fernando Artetxe gernikarra, Argi Palenque bilbotarra eta Luis Etxebarria, Igorrekoa.

Ibilbide horri aurre egiteaz gain, bestetik, nolabaiteko laguntza ere jaso dute ibiltariak

hainbat eremutan. Hain zuzen, Gernikako Udalak hainbat eskutitz bidali zituen laguntza eske, eta salbuespenak izan diren arren, oro har, jaso duten sostengua on izan da toki orotan. Estatu frantsesean eta Alasazian, adibidez.

Arlo horretan, Gernikako Goi-zale mendizale taldeak ere lagundu du.

Aterpetxeak, ostatuak, etxe partikularrak... Hainbat lekutan atsedean hartu dute ibiltariak egunotan. Hasiera batean, Baso Beltz inguruetan ibili ziren, lo egiten ere; eta gero, aldiz, eremu frantsesera igaro

eta Estrasburgotik pasatu ostean, Döne Jakueren bidea izan zuten ardatz Euskal Herrira bidean.

Bitartean, hamaika bizipen izan dituzte, eta egindako geldiune edota bisiten artean, Europako Legebiltzarrean izan dira. Orain aste bete inguru, Gurs antzinako kontzentrazio eremuan egon ziren, Done Jakue bidetik kilometro gutxira dagoen Béarn-en. II. Mundu Gerran sei milatik gora euskaldun errepublikar izan ziren han.

«Bakearen Bidea» egiteko asmoa orain dela bi urte Gernikako Udalean hasi ziren mamitzen. Baina, oro har, antolakuntza eta ardura nagusia Michael Kasper-ek hartu zuen bere gain.

Hainbat taldetan jardundakoa da, eta lehen ideia gorputzu zuen etapak eginez, kilometroren nondik norakoak aztertzen... kontu gehienak koordinatzen, alegia. Nahiz eta Gernikako Udaketik laguntza handia izan, batez ere ekonomikoa, bere esku geratu zen guztia.

Tamalez, izatez alemaniarra, baina azken urteotan Gernikan bizi eta Deustun irakasle izandakoa ibilbidea amaitu baino lehen zendu da. •

Izaro AULESTIARTE

GERNIKA

Jornadas sobre la Paz en el 68 aniversario del bombardeo alemán

GARA

GERNIKA

El Centro de Investigación por la Paz Gernika Gogoratu celebrará esta semana las XV Jornadas Internacionales de Cultura y Paz, que en esta edición se desarrollarán bajo el lema «La imaginación moral. El arte y el alma de la construcción de paz».

Este colectivo organiza de manera anual estas jornadas, coincidiendo con el aniversario del bombardeo de Gernika. En esta ocasión, el certamen pretende «explorar cuatro claves expuestas en la obra de John Paul Lederach sobre la capacidad humana para desarrollar propuestas creativas en la cultura de la mediación y de la reconciliación», según explicó Gernika Gogoratu en un comunicado.

De esta manera, se abordarán las propuestas para «adentrarnos en escenarios con el fin de «imaginarlos en contextos complejos, imaginarnos en relación con el otro, confiar en el propio acto creativo y asumir riesgos».

Las Jornadas Internacionales de Cultura y Paz están dirigidas a especialistas en estudios por la paz, estudiantes universitarios del master Paz y Desarrollo de la UPV, del master de Ayuda Internacional Humanitaria de la Universidad de Deusto y de otras

universidades que abordan esta temática en Barcelona, Castellón y Granada.

El arranque tuvo lugar ayer, con la celebración del duodécimo encuentro de testigos supervivientes del bombardeo. Uno de los platos fuertes fue la presencia de Juan Miguel Bombín, testigo directo de la masacre perpetrada por la aviación alemana y autor del libro «Un año al frente. El bombardeo de Gernika. Memorias de un miliciano».

El 68 aniversario del ataque se conmemorará mañana con un acto en el que, además de Bombín estarán el hijo de George Steer, primero en alertar a la sociedad internacional del bombardeo de Gernika, y el periodista Nicholas Rankin. El miércoles dará comienzo el programa académico y artístico. A lo largo de tres jornadas, en sesiones de mañana y tarde, se pondrán en común diversas experiencias y se realizarán mesas redondas, talleres, presentación de proyectos y encuentros de la Red Gernika.

SUPERVIVIENTE

➤ **Juan Miguel Bombín, testigo directo del ataque, presentó ayer su libro de memorias.**



Jon HERNÁNDEZ | ARGAZKI PRESS

Juan Miguel Bombín, durante la presentación de su libro de memorias.